

Kristo gurutziltzatua Cristo crucificado

Eskulturaren bukaerako egoera
Estado final de la obra



Objektua ■ Objeto

Eskultura Escultura

Jatorria ■ Procedencia

Gasteizko Santa Maria katedrala
Catedral de Santa María de Vitoria-Gasteiz

Kronologia ■ Cronología

1580

Azalpena ■ Descripción

Artozko Kristo hau Jesukristoren irudikapena da, arto kanaberaren orez, landare zuntzez eta oihal lekedatuz egina. Este Cristo de Maíz, es la representación de Jesucristo realizado mediante pasta de caña de maíz, fibras vegetales y telas encoladas.

Cristo de Maíz

El origen de esta técnica prehispánica está en la elaboración con pasta de caña de maíz, fibras vegetales y papel o telas encoladas las efigies de dioses, animales y otros objetos de decoración por los nativos en México, consiguiendo un reducido peso en esculturas de grandes dimensiones. Así podían llevar las esculturas de sus dioses a la guerra y nunca se veían obligados a abandonarlas en los campos de batalla.

Con el proceso evangelizador iniciado en 1492 esta técnica es asimilada por los colonizadores españoles cuyos sacerdotes la utilizarían con el mismo fin. Más tarde se exportarán a España estas imágenes para las Iglesias y procesiones. Este es el origen de los Cristos de caña de maíz, un arte mestizo que engloba el encuentro de dos culturas.

Técnica de fabricación

Este tipo de esculturas ligeras se efectuaban a través de moldes en varias fases. Primeramente, para la realización del tórax disponían de hormas realizadas en dos mitades correspondientes una a la zona frontal y otra a la trasera. Sobre estas hormas, generalmente de material arcilloso, se superponían pliegos de papel encolados, hasta obtener

Artozko Kristo

Mexikoko bertatiarrak jainkoen eta animalien irudiak eta apaingarriak egiteko erabiltzen zituzten arto kanaberaren orearen, landare zuntzen eta paper edo oihal lekedatuen lanketan dago teknika prehispaniko horren jatorria. Teknika horrekin eskultura handi baina arinak lortzen ziren. Pisu arin horri esker gerretara eraman ahal izaten zituzten beren jainkoak eta ez ziren inoiz behartuta egoten haiek gudu-zelaietan bertan behera uztera.

1492an abiarazitako prozesu ebanjelizatzailearekin bereganatu egin zuten teknika hori Espainiako kolonizatzaileek, eta haien apaizek erabilera bera eman zioten. Irudi horiek, geroxeago, Espainiara eraman zituzten, elizetan jarri eta prozesioetan ateratzeko. Horixe da arto kanaberazko Kristoren jatorria: arte mestizoa, bi kultura elkartzearen ondorio.

Egiteko teknika

Eskultura arin horiek molde bidez egiten zituzten, zenbait fasetan. Lehenik eta behin, bularraldea egiteko, molde bi zituzten, bata aurreko alderako eta bestea atzeko alderako. Gehienetan buztinez egindako bi molde horien gainean paper lekedatu geruzak jartzen ziren, nahi zen bolumena lortze aldera. Gero arto



Azterketa endoskopikoa
Realización del estudio endoscópico



kanaberak gehitzen ziren ilaran eta eskatutako eran jarri. Bi erdiak zituztenean elkarretaratu edo mihiztatu egiten zituzten.

Burua ere bi molderekin egiten zuten. Hazpegiak eginak zituen mo-zorro edo maskara bat zuten, aurpegirako. Molde hori kanabera ehoz egindako orez betetzen zuten eta gero papera jartzen zuten tinkotzeko eta moldetik ateratzea errazagoa izan zedin. Ondoren, burua eta bularra mihizatzen ziren, zurezko buloi bidez.

Beso-bernak amate paperezko hodiak erabiliz egiten ziren: zuhaitzen barruko azalarekin edo arto kanaberaz estaltzen zen zurarekin, nahi zen itxura eman arte; eskuak eta oinak zurez egiten ziren, haien bidez oratzen baitzion eskulturak gurutzeari.

Eskultura guztia mihizatuta zutenean, arto kanaberaz egindako ore geruza bat ematen zioten, oso fin ehoa, berdintzeko eta, ondoren, polikromatzeko.

Azterketa

Eskultura zaintza egoera txarrean zegoen: zenbait kolore geruza galdurik zituen, arrakalak eta pitzadurak bi besoetan, atzamarrak hautsita, bai eta arantza koroa ere. Horrez gain, berniz geruza lodia galdurik zeukan eta hainbat pintura ukitu.

- Eskulturaren egindako azterlanak ondokoak izan dira:
- X izpiak
- Endoskopia
- Kolore geruzak, arto kanabera, landare zuntzak eta oihalak biltzea eta identifikatzea

Egindako lanak

- Berniza eta aurreko esku hartzeetan aplikatutako ukituak kentzea
- Eskuineko besoa eta eskatutako beste bolumen batzuk finkatzea edo jostea
- Hutsuneak itzumatzea
- Koloreak leheneratzea
- Azkenean, babes geruza bat ematea

Aldundiak eta Gotzaindegiak eratutako bitariko batzordeak izenpe-tutako hitzarmenari esker zaharberri-tu da obra hori.



el volumen deseado. Luego se añadían cañas de maíz alineadas y dispuestas a la forma requerida. Cuando tenían las dos mitades las ensamblaban.

El volumen de la cabeza también se hacía con dos moldes. Disponían de unas máscaras en las que estaban dadas las facciones para la pieza frontal. Este molde lo rellenaban con pasta de caña triturada y luego colocaban papeles para reforzar y que fuera más fácil desmoldar. Posteriormente se ensamblaba la cabeza al tórax por medio de un perno de madera.

Los brazos y piernas se realizan a través de un tubo de papel amate, realizado con cortezas internas de árboles o también de madera que se iba forrando con cañas de maíz hasta la forma deseada, Normalmente las manos y los pies se realizaban en madera ya que son zonas que sujetan la escultura a la cruz.

Cuando tenían toda la escultura ensamblada aplicaban una capa de pasta de caña de maíz, triturada muy fina, para igualar y luego policromar.



Pintura geruzen estratigrafia
Estratigrafía de capas pictóricas



Arto kanaberaren xehetasunak
Detalle de las cañas de maíz

Estudio

La obra presentaba mal estado de conservación con numerosas pérdidas de capas de color, fisuras y grietas importantes en los dos brazos, roturas de los volúmenes en los dedos, corona de espigas además de un grueso estrato de barniz y numeroso retoques pictóricos

- Los estudios realizados en la obra han sido los siguientes:
- Rayos X
- Endoscopia
- Recogida e identificación de capas de color y de caña de maíz, fibras vegetales y textiles

Tratamiento realizado

- Eliminación del barniz y retoques aplicados en intervención anterior
- Fijación del brazo derecho y otros volúmenes desprendidos
- Estucado de lagunas
- Reintegración cromática de las mismas
- Aplicación de una capa de protección final

Esta obra se ha restaurado gracias al convenio de la comisión mixta Diputación-Obispado.